

Maitasuna, generoa eta nerabezaroa: ikerketa baten emaitzak

Irantzu Fernández Rodríguez

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

jirantz@hotmail.com

Gako-hitzak: maitasuna, nerabezaroa, feminismoa, generoa, sozializazioa.

Laburpena: artikulu honen helburua nerabeek maitasunaren inguruan dituzten diskurtso eta praktikei buruz hausnartzea da, ikusitako jarraipen, tentsio, gatazka eta hausturei arreta berezia eskainiz. Lortutako emaitzetan, ezberdintasunak agertzen dira neska eta mutilen artean (beste faktore batzuek erakutsitako aldagarritasunez gain). Honekin guztiarekin, maitasunaren sozializazioaren bitartez genero arteko desabantaila egoera bermatzen dela baieztatzera iritsiko gara. Hala ere, tentsioak eta gatazkak nabariak dira, eta eraldaketarako giltza izan daitezke.

Sarrera: abiapuntuaren nondik norakoak

Artikulu hau 2008-2009 ikasturtean EHUKo Ikerketa feministak eta generokoak masterrean egin nuen amaierako ikerketan –*Maitasuna nerabeen arteko genero sozializazio prozesuetan* (2009)¹– oinarrituta dago. Artikulu honetan bertan ateratako ondorioei buruz hausnartzen ahaleginduko naiz. Horretarako, ulermena errazteko asmoz, lan horren nondik norako metodologikoen, teorikoen zein enpirikoen berri ematen saiatuko naiz.

Ikerketa horretan maitasuna eta nerabezaroa uztartu nahi izan nituen ikuspegi feminista batetik. Izan ere, oso gutxi ikertu izan dira maitasuna eta nerabezaroa elkarrekin. Euskal Herrian gazteen inguruan azken bi hamarkadetan eginiko zenbait ikerketei modu azkar batean erreparatuz gero, faktore komunak ikus daitezke. Batetik, gaztaroaz hitz egiten dutenean adin tartearen mugaketan bat egiten dute ikerketek. Gazte izatea 15 eta 30 urte bitartean kokatzen dute, aurreko adin tartetean hutsune nabarmena utziz. Bestetik, ikerketa hauetan

¹ Lan hau Mari Luz Estebanen zuzendaritzapean egin nuen.

afektibitatea sexualitatearekin batera uztarturik ageri da. Baina sexualitateari berezko garrantzia ematen zaio ikerketetan, gazteen arteko sexu-harremanen inguruko informazioa eta heziketa erdigunean kokatuta. Ikerketa gutxi batzuetan afektibitateak bere espazioa izan du, baina hauetako gehienetan ez dago sexuaren arabera sailkatutako daturik, genero sistema estalian geratzen delarik. Azken urteotan zenbait ikerketa egin dira maitasunaren inguruan, betiere maitasuna eta emakumearen kontrako indarkeria elkarlotuz. Era horretara, maitasunaren ikuspegia murritzaila izan dela pentsa daiteke. Horregatik, interesgarria ikusten nuen maitasunaren kontzeptio zabalago batetik abiatzea, sexualitatea eta indarkeriaz gain bestelako eremu batzuk hartzeko asmoz.

Nerabeen maitasunaren esanahiak eta elkarrekintzak ikertu eta interpretatu nahi izan nituen euren diskurtsoetatik abiatuz. Ikerketa Bilbon garatu zen, Santutxu eta Txurdinaga-Otxarkoaga auzoetan; klase ertainekoa da lehena, eta klase ertain eta baxukoa bigarrena. Nerabeak 12 eta 14 urte bitarteko neska-mutilak izan ziren. Adin tarte horretako nerabe horiek aldaketak bizi-tzen ari ziren; ez soilik gorputz eraldaketak, pubertaroari lotu izan zaion bezala, harremanen eta hauen espazioen aldaketak nabar-menak ziren.

Ikerketako nerabeak auzo horietako bi institututako ikasleak ziren, bata publikoa eta bestea kontzertatu eta erlijiosoak; beraz, heziketa ezberdinetakoak. Horrez gain, adierazgarria da, institutu publikoko neska-mutilek institutuko "Emakume batzordean"² parte hartzen zutela. Diskurtso femi-

² Emakume Batzordea institutu honetan dagoen emakume taldea da. Nerabeei eskolaz kanpoko jarduera bezala aurkezten zaie. Institutu barnean mobi-

nista landu bat ez izan arren, nerabeen ustez beharrezkoa zen talde horretan parte hartzea. Bestetik, aisialdiari dagokionez, guztiek institutuan, eskolaz kanpoko jardueratan eta etxean ematen zituzten astegunak. Telebista ikustea gustuko zuten, eta institutu publikoko nesken kasuan, irakurketak berezko garrantzia zuen. Asteburuari dagokionez, nerabe hauetan bi ildo nagusi bereizten ziren. Batetik, institutu publikoak asteburuetan plazaren batean egoten ziren eta, bestetik, kontzertatu-erlijiosokoak diskoteketara eta alkohola edatera joaten ziren. Maitasun esperientziei dagokionez, guztiak familia nuklear eta heterosexualetan bizi ziren, eskola erlijiosoko neska bat izan ezik, gurasoak dibortziatuta baitzituen. Beste maitasun praktikei dagokionez, guztiek harreman afektibo-sexualak izan zituztela baieztatu zuten, institutu publikoko neskek izan ezik.

Maitasunaren diskurtso eta praktikak bideratzen dituzten motibazio eta esanahiak nerabeen bizi ibilbideen baitan ulertu nahi genituzenez, metodologia kualitatiboa erabili nuen³. Esanenez, hori errealitate zabalago baten lekukoa izan daitekeela, Euskal Herriko beste zenbait guneetan, ezaugarri sozial, ekonomiko eta politiko antzekoak aurki daitezkeelako. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago ikerketa honen helburua ez dela maila estatistikoan orokortzea, bai-

lizazioa eta kanpaina ezberdinak burutzen dituzte. Horrez gain, generoen arteko desabantaila egoeraz mintzatzeko, hausnartu eta eztabaidatzeko momentua da.

³Institutu bakoitzean bi hiruko talde burutu nituen, bata neskekin eta bestea mutilekin. Taldeak eratzera-koan garrantzitsutzat jo nuen kideen artean laguntasuna egotea, horrek maitasunari buruz hitz egitean konfiantza sortu eta erraztuko zuelakoan. Horregatik, taldeak eskolaren arabera antolatuta nituen.

zik eta errealitate horietan ematen diren maitasunaren fenomenoak ulertzea.

Maitasunaren esparru teorikora hurbilketa

Ikuspegi teorikoari dagokionez, maitasuna definitzeko ahalegin ezberdinak egin izan dira. Teoria feministatik maitasunaren inguruan egin diren ikerketak ez dira beste gai batzuen inguruan egin direnak bezain anitzak (besteak beste, sexualitatearen inguruan egin direnak bezain ugariak). Hala ere, egin diren horietatik, autore askok ikusi izan dute maitasunaren ideologia zehatzek genero desabantaila egoerak bermatzen dituela emakumeen kalterako (Altable, 1991; Coria, 2001; Jónasdóttir, 2003; Lagarde, 2005; Esteban, 2007). Baina maitasuna ildo epistemologiko askotatik ikertu izan dela esan beharra dago: biologiari (Fisher, 2004), soziologiari (Luhmann, 1985; Giddens, 1998; Beck-Gernsheim eta Beck, 2001; Bauman, 2005), historiari (Stearns eta Stearns, 1985) emozioen antropologiari (Rosaldo, 1980; Abu-Lughod, 1986; Lutz eta White, 1986; Esteban, 2007), besteak beste.

Emozioen antropologiari abiatuta, maitasuna emozio bezala hartzerakoan, arazo bat sortzen da: emozio indibidualen eta kolektiboen arteko bereizketa egitea. Esperientzia indibidualak sistema baten barnean daude, une eta toki zehatzetan. Horrek ez du esan nahi emozio kolektiboa delakoa norbanakoen batuketan denik, baizik eta jendarte sistema bakoitzak emozioak bizitzeko pautak banakoen biografietan txertatzen dituela. Ikuspegi erlatibista batetik, kultura bakoitzaren eta denboraren une bakoitzaren baitan emozioen adierazpenak eta erabilpenak

ezberdinak dira. Carol Z. Stearns eta Peter N. Stearns-ek (1985) aldaera hori azaltzeko "emozionologia" edo "emozio erregimena" erabiltzen dute. Kontzeptua jendarte sistemak bermatzen dituen arau kolektibo emozionalak izendatzeko hartzen dute. Emozionologiak adin, genero zein klase sozialaren arauetan ere eragina du, pertsonen arteko botere harremanak ahalbidetzen baititu. Emozionologiak eragina du, beraz, pertsonen jokabideetan.

Nerabeen maitasunaren sozializazio prozesuak aztertzeko emozioen eta maitasunaren izaera kultura agerian jarri nahi da ikuspegi konstruktibista kritiko batetik. Horretarako, ikerketa Peter Berger eta Thomas Luckmann-en (2006[1967]) planteamendu teorikotik abiatu da, non errealitatea eraikuntza soziala den eta pertsonak errealitate horien ondorio. Esan beharra dago ikuspegi honek ekarpen handiak egin dituela gizarte zientzien zein teoria feministaren barruan. Hala eta guztiz ere, konstruktibismoaren "dena eraikia da" baieztapena kritikatu izan da, gehiegizkotzat jo izan delako hainbat alderditan, gorputzaren, emozioen zein identitatearen eraikuntzan (Connell, 1995; Brubaker, 1996; Reddy, 1997; Esteban, 2008). Kritika hau emozioen antropologiari eramatean duena William M. Reddy (1997) da. Bere ustez, emozioak testuinguruaren eta egituraren arabera bakarrik baldintzaturik daudela baieztatzea gehiegikeria litzateke. Ikuspegi feministek esentzialismoaren kontra eginiko ahaleginak neurritz gainekotzat jotzen ditu, erlatibismo larregikeria egiterakoan ezaugarri fisiologiko eta psikologikoak kanpoan uzten dituztela kritikatu du. Reddy-ren esanetan, gizabanakoa egitura sozialaren arabera guztiz moldagarria baldin bada, ez dago sistemaren aldaketarako aukerarik. Horretatik, bere

planteamendua emozioen keinu eta gorputz adierazpenen izaera plastiko eta dinamikoaren azterketan oinarritzen da, aktore soziallek errealitatea eraldatzeko gaitasuna agerian jartzeko. Komunikazio ekintzaren teorian oinarriturik, imintzio eta esanahi emozionalen dinamikotasuna unibertsaltzat hartzen du. Hau da, baieztapen unibertsalen alde eginik, funtsezko emozioen moldeak eta aldaketak testuinguru guztietan ematen direla onartzen du.

Reddy-ren kritikari jarraituz, konstruktibismoa ukatu gabe, Mari Luz Estebanen (2007) proposamena abiapuntua izango da lan honetan: Michelle Z. Rosaldoren emozioen definizioarekin bat egitea, hau da, emozioak "pentsamendu gorpuztuak" bezala hartuta (Rosaldo, 1984:143; in Esteban, 2007:76) eta aldi berean praktikaren teoriarekin bat egitea, hots, sistema soziala eta norbanakoaren ekintzak interakzioaren aritzearen teoria kontuan izatea eta, era horretara sistema eraldatzeko aukera ikuskatzea (Esteban, 2007:81). Azken puntu hau funtsezkoa dela esan daiteke ikerketaren ondorioak kontuan hartuta.

Horrez gain, maitasuna testuinguru politikoren eta sozialean arabera alagarria izateaz gain, maitasuna bizitza prozesuen baitan eraldatu egiten dela esan beharra dago. Adin bakoitzari jendarteak ezartzen dizkion pauten eta itxarobideen barnean, maitasunari dagozkienak daude. Marcela Lagarderen hitzetan,

La edad es una clave fundamental para el amor. Porque el amor quiere ser etéreamente realizable. Tengo esta edad y necesito saber cómo vivo mi edad, cómo estoy en mi edad, cómo estoy en el cuerpo de mi edad, cómo está mi sexualidad de acuerdo con mi edad. Necesito ubicarme en mi edad para saber cuáles son mis necesidades amorosas (2005: 356-357).

Nerabeen maitasunaren diskurtso eta praktikak

Azterketa emozioen antropologiaren baitan Dorothy Tennov-en definizioa aintzat harturik egin da. Autore horrek maitasuna pentsamendu, emozio eta ekintza eredu konplexutzat hartzen du (Tennov, 1979:173; in Esteban, 2007:72). Hortaz, esan daiteke maitasuna dimentsio anizdun pentsamendu, emozio eta ekintza eredu dela, kasuan kasu, bizipen ezberdinak bideratu eta testuinguruaren arabera aldaerak dituen, hau da, arau kolektibo emozionalaren aldaerak dituen. Nerabeen maitasunaren inguruan dituzten diskurtsoak eta praktikak ikuskatzeko Tennov-en antolaketatik abiatuko da lana.

MAITASUNA EMOZIO KONPLEXU BEZALA

Nerabeek maitasunarekin lotzen dituzten emozioei dagokienez, maitasuna emozio baikorrekin lotzen zuten: alaitasuna, poztasuna... Baina hemen aldaera nabarmena aurkitu nuen neska eta mutilen artean. Neskek emozio hauekin batera sufrimendua eransten zioten maitasunari. Euren hitzetan "Maitasunak, pozaz gain, sufrimendua dakar", "Maitasuna sentimendu baikorra da, baina maite dizun horrek min egin ahal dizu. Ez bakarrik bikote harremanetan, maitasun harreman guztietan". Horrek sufrimendua pairatzeko alde aurretiko prestutasuna suposatzen du. Maitasunaren sentimenduaren baitan sufrimenduaren normalizazioak sufrimendua jazarpenaren normalizazioa ekarri baitezake. Mutilen diskurtsoetan, berriz, ez zen sufrimenduaren inguruko sentipenik adierazi, eta horren inguruan galdetuta ere, ukatu egin zuten. Maitasuna gehiago lotzen zuten urduritasunarekin eta jeloskortasunarekin. Mutilen

len esanetan, “Ni maiteminduta egon naiz, asko ez, apur bat. Beste mutil batekin ikusi eta zerbait sentitzen duzu, jeloskor jartzen zara”, “*Y te dan ganas de conseguirla*”, “Eta gero urduri jartzen zara”. Beraz, jeloskortasuna kontrola eta jabetza terminoetan definitu zuten.

MAITASUNA EKINTZA BEZALA

Maitasunak nerabeen egunerokotasunean duen garrantzia ikusi nahi izan nuen. Neskek egunerokotasunean garrantzi handiagoa emango ziotela pentsatu nuen hasieran. Baina ikerketan aurrera egiteak hipotesi hori ukatzera eramanez ninduen. Nerabe guztiek maitasuna oso garrantzitsutzat jo zuten, bakardadearen antonimo bezala hartzen baitzuten. Familiak duen garrantzia azpimarratzen zuten, bai norberak jadanik duen familiak bai etorkizunera begira funtsezkotzat jotzen zuten familia horrek. Oro har, maitasuna ezinbestekotzat jotzen zuten, baina berezitasun bat gertatzen zen. Guztiek garrantzitsutzat jo arren, mutilek maitasunari buruz pentsatzea edo hitz egitea ukatu zuten; neskek, berriz, horren inguruan pentsatu eta hitz egiten zutela adierazi zuten. Neskek maitasun harreman berrien edota harremanetan arazoak dituztenean, maitasunaren inguruan pentsatzeko joera handiagoa zeukatela esan zuten. Hau da maiteminak edo sufrimenduak maitasunari buruz hitz egitea eramaten dituela esan zuten. Maitasuna egunerokotasunaren parte denean ez dutela honen inguruko hausnarketarik gauzatzen adierazi zuten.

Maitasunaren eraikuntza horretan zein nolako sailkapenak egiten dituzten eta hauetariko arlo bakoitza zein modutan bizi duten aztertu nahi izan nuen. Diskurtso

sozialetan ohikoa den bezala, nerabeek hiru maitasun mota bereizi izan zituzten: familia, lagunak eta bikotea. Familia nerabeen diskurtsoetan gehien baloratu zuten maitasuna da. Inork ez zuen zalantzan jarri. “Bizia eman dizutelako”, “Beti zurekin egon direlako” bezalako esaldiak agertu ziren hau justifikatzeko. Maitasunaren betierekotasuna agerian jarri zuten. Ildo horretatik, maitasun erromantikoaren aztarnak agertu ziren. Nerabeek, ordea, familiarekin gero eta ekintza gutxiago burutzen dituztela adierazi zuten, lagunekin gusturago daudelako. Lagunekiko maitasuna ere garrantzitsutzat jo zuten, komunikaziorako eta intimitaterako momentu bezala bizitzen zuten adiskide artean egotea. “Askapen uea” bezala definitu zuten. Neska-mutilek laguntasuna era ezberdinetan bizi zuten, neskek intimitatea baloratu zuten bitartean, mutilek ekintza eta praktika zehatzekin lotzen zituzten lagunak. Azkenik, bikote harremanak ez zituzten asko baloratzen. Hau justifikatzeko adinaz baliatu ziren, etorkizunean erlazio horien “normalizazioarekin” gehiago balortzea espero zuten. Maitasun mota hau beste maitasun motetatik bereizteko jarrera aktiboa agerian ipini zuten: “Beste pertsona horrekin zaude, berarekin egon nahi duzulako edo gustukoa duzulako”.

Maitasun bizipenek maitasun ereduaren eraikuntzan duten eragina ikertzeko ez naiz soilik eremu praktikora mugatu. Lagardek (2005) esaten duenez, imajinazioan ere maitasun bizipenak gertatzen dira, maitasun fantasiak maitasun bizipenak direlarik. Ikerketako neskek triste daudenean maitasunari buruz gehiago pentsatzen zutela adierazi zuten. Aitortu zuten triste daudenean lagunaren maitasunean pentsatuz lortzen zutela egoera hori gaingitzea eta lagunekin haserretuz gero familiararen maitasunean pentsatzen

zutela. Maitasun mota guztiak dituzte baliogarri. Era horretara, maitasuna imajinazioan bizi zuten, errealitatean bere ondorioak dituelarik. Lagardek honi buruz hitz egiten du (2005:351), emakumeek krisiak gainditzeko maitasun imajinarioak erabiltzen dituztela dio eta horrela ikusi izan dut ikerketa honetan ere.

Neskek fantasiak lagungarri izateaz gain, batzuetan fantasiak errealitatearekin kontrastatzen dituztela adierazi zuten. Kontraesan hauek, azken batean maitasunaren desidealizazioa, bikote harremanak izan dituztenek baino ez zituzten pairatu. Nesken esanetan, "Igal imajinatzen duzu mutil laguna izango duzula, eta dena oso ondo joango dela, baina batzuekin ondo joango da eta beste batzuekin txarto. Ez da espero duzun bezala". Mutilen esanetan, "Buruak daukazu oso ondo pasako duzula. Ondo pasatzen duzu, baina zuk uste beste ez. Ez da hainbesterako", "*Lo flipamos mucho en la adolescencia*".

Maitasun eredu horien zein erreferente zuten galdetzean telebistako telesailak agertu ziren. Gehiengoa identifikatuta sentitzen da nerabeei buruzko telebistarekin, nahiz eta gero hauek imitazioerako ala ez imitazioerako erabil ditzaketen. "Institutu bat da, egunerokoan gertatzen diren gauzak. Nerabeen gauzak dira [...]. Ulertu egiten ditugu [...]. Ikasten duzu. Gertatzen dira gauzak, orain guk gauza batzuk ez ditugu egiten, baina ahal dituzu eredutzat hartu [...]. Horrela, badakizu gauza horiek gertatu ahal direla". Horren aurrean neska batzuek jarrera kritikoa erakutsi zuten, identifikazioa eta errealismo maila zalantzan jarriz. Hala eta guztiz ere, neskek maitasun harreman idealtzat zuten eredia telesailetatik hartutakoa zen.

Telesailetatik hartzen dituzten ereduez gain, lagun eta gertuko maitasun narra-

zioak garrantzitsuak direla adierazi zuten. Lagun artean kontatzen dituzten istorioak, hain zuzen ere. Bestetik, guztiak aipatu zuten kaletik ikusten dituzten bikoteak maitasunean pentsarazten dietela. Aurrean duten bikote hori ezezaguna den heinean, harremana imajinatzen dute eta, era horretara, euren errealitatearen imajinarioa eramaten dute. Hemen agertuko zen fantasiaren faktore sozializatzailea.

Maitasunak eguneroko praktiketan zer nolako eragina duen behatu eta eguneroko praktikak maitasunean duten eragina aztertu nahi izan nuen. Maitasunak aisialdiko praktiketan eragina duela ikusi nuen. Neska talde bietan aitortu zuten maiteminduta egoteak beste pertsona horrekin pentsatzen ematen zutela denbora gehien, horrez gain pertsona hori dagoen tokietara joateko gogoia zutela eta horretan saiatzen zirela. Horretaz gain, identifikatuta sentitzeko maitasun kantak entzutea gustatzen zitzaie-la ere esan zuten. Mutilen narrazioetan ere antzekotasunak daude, maitemindutako pertsonarekin egoten saiatzen direla adierazi zuten. Baina besterik ez, ez zuten musika mota ezberdina entzuten, hori "nesken gauzak" edo "kursiladak" direla esan zuten, gutxiespen zentzua emanez.

Bestetik, nerabeek euren aisialdiaren antolaketaren arabera, maitasun praktikak izateko edo ligatzeko momentua aldatzen dela ikusi nuen. Izan ere, plazetan arratsaldeak pasatzen zituzten nerabeek eskolan jartzen zuten arreta gehien: jolastorduak maitemintzerakoan edo ligatzeko momentu bezala ikusten zituzten. Ikastetxeetako pertsonekin maitemintzen direla adierazi zuten. Besteek, berriz, larunbatak ligatzeko eguna zela aditzera eman zuten. Larunbatean jendea ezagutzeko eta jende ezberdinarekin biltzeko aukera ikusten zuten.

MAITASUNA PENTSAMENDU BEZALA

Maitasunak identitatearen heltze prozesuan zein nolako eragina duen ikusi nahi izan nuen. Heltze prozesuari dagokionez, neska eta mutilen artean alde nabarmenak daudela aitortu zuten nerabeek. Genero identitatea heldutasunarekin lotu zuten. Neskek mutilak infantilagoak direla ikusten zuten, eta mutilek berriz neskek helduagotzat jo zituzten.

Horrez gain, heltze prozesu horietan maitasunaren eta sexu harremanen eragina azpimarratu zuten. Neskek zein mutilek “ligatzen duten neskek” nagusiagoak sentitzen direla ikuskatzen zuten. Ligatzen duten nesken eta ez dutenen artean botere harremana sortuko litzateke. Harreman afektibosexualak izan ez dituzten esanetan, “Ligatzen duten neskek sentitzen dira ‘superioreak’ [...]. Arrakastatsuak izaten dira. Gehienetan beti berdinak izaten dira: guapak, popularrak, titiak dituztenak, eta pijak, markatzen doazenak”.

Bestetik, harreman afektibosexualak izan dituzten neskek euren burua ez zuten helduagotzat jotzen harremanak izateagatik. Hauen ustez, erlazio horretan egiten duzunaren arabera egongo litzateke gakoa (“ikus-terakoan lotsarik ez izatea”, “kaletik besarkatuta joatea”, “harreman sexualen arabera”, “konfiantzaren arabera”...). Horri lotuta egongo litzateke nerabeek euren harreman afektibosexuali buruz egiten duten interpretazioarekin. Izan ere, harremanen iraupen laburra adinarekin lotzen zuten. Horrekin batera neskek konfiantza eza azpimarratu zuten eta mutilek sexuari garrantzia eman zioten. Guztiek uste zuten helduagoak direnean harremanak hobeak eta ezberdinak izango direla, denbora luzekoak eta praktika ezberdinak izango dituztela. Etor-kizunean proiektatzen zituzten euren maita-

sun harreman estereotipoak eta itxarobi-deak. Esan bezala, diskurtso guztietan erlazioen “normalizazioa” espero zutelako argibideak ematen zituzten. Harremanak eraldatzeko aurreustea eta nahia jendarteak helduaroan maitasun harremanak ezartzeko joeraren ondorioa da. Izan ere, esan bezala, maitasun harremanak ere adin bati lotuta daude maitasun erregimenaren ondorioz.

Genero sistemaren jarraipen, tentsio, gatazka eta hausturen aniztasuna

Teresa del Vallek koordinatutako lana, *Modelos emergentes en los sistemas y relaciones de género* (2002), abiapuntu izanik, genero sistemen teoria sozialari hurbilduko naiz. Beste batzuen artean, Robert Connell-en (1987) edo Janet Saltzman-en (1992) teorian tinkoturik dago ikerketa hau. Connellen teoriaren arabera, genero sistema hegemonikoan denboran mantentzeko joera eduki arren, horrekin batera bestelako erregimenak sortzeko aukera dagoela baieztatzen du, erregimen berriak sistemaren aldaketarako bidea izan daitezkeelarik. Ildo horretatik, nerabeen maitasun diskurtso eta praktikek genero sistemarekiko dituzten jarraipen, tentsio, gatazka eta hausturen aniztasuna aztertu nahi zen, nerabe hauek bizi duten ustezko jendarte parekidearen testuingurutik aldendu gabe.

Jarraipenak, aurreko atalean ikusi denez, ugariak dira. Genero arteko desabantaila egoera mantentzeko aurkitutako lehen ezaugarria emozioen esparruan gertatzen da. Neskek maitasunarekin lotzen zituzten emozioak ezaugarri baikorrekin batera, tristura berezkotzat jotzen zuten. Maitasun harremanen baitan gorroto uneak egoteko aukera ikuskatzen zuten. Horrek guztiak

maitasunaren eta maitasun harremanen aurrean jarrera jasangarriagoa ematen die neskei, sufrimendua pairatzea aurreikusten baitute. Mutilek, aldiz, maitasuna emozio baikorrekin lotu arren, maitasunari buruz jabetza terminoetan mintzatzen ziran. Horrek jeloskortasuna maitasunaren berezko ezaugarritzat hartzera eramaten ditu. Maitasunaren pertzepzio hauek botere harreman asimetrikoak bideratuko dituzte maitasun eremuetan. Bestetik, ligatzeko orduan mutilek ausardia erabiltzea aitortu zuten eta neskek hauekin majoak izaten eta apainketaren bitartez ligatzen zutela adierazi zuten. Laguntasunari dagokionez, neskek eta mutilek era ezberdinean interpretatu zuten (intimitaterako eta ekintzarako, hurrenez hurren). Genero rola ezarrita daude zentzu horretan ere.

Nerabeek euren etorkizuna proiektatzekoan familia eredu nuklearra irudikatu zuten, guztiek euren burua ezkondu eta seme-alabekin imajinatzen zuten. Errealitatean ematen den joeraren kontrakoa da hori⁴. Gurasoak dibortziatuta dituen neska- kasuan, bere gurasoei "txarto" joan zaialako ez zuen uste berari horrela gertatuko zitzaionik. Guztiek "derrigorrezko" heterosexualitatea pairatzen zuten. Ez zuten harreman homosexualen aipamenik egin eta bikote harremani buruz hitz egiterakoan

era mekanikoan harreman heterosexualez mintzatu ziren.

Genero sistemarekin sortzen diren tentsioei dagokionez, nagusia nerabeen berdintasun diskurtsoaren eta praktiken artekoa da. Euren egindako maitasun harremanen sailkapenean erlazio horiek maila guztietan parekideak direla aitortu zuten, nahiz eta gero gauzatutako praktiken deskribaketan genero botere harreman asimetrikoak agerian jarri. Familia harreman "parekideen" atzean, etxeko lanen banaketa asimetrikoa nagusitzen da, amaren kalterako. Bikote harreman "parekideak" justifikatzeko, mutilek honako hau esan zuten: "Beste ezereen gainetik, neskek ondo tratatu behar dira. Bestela ez da ligatzen". Harremanak instrumentalizatzen dituzte euren helburuetarako. Berdintasunaren diskurtsoarekin botere harremanak ikusezin bilakatzen dira.

Genero identitateei dagokienez, ageriko bi gatazka gunen nabarmendu dira. Lehendabizikoa, neskek gorputza itxuraldatzen dutenean ematen dena da. Makilatu, arropa konkretuak erabili edota takoiak erabiltzea euren burua ederrago ikusteko egiten zutela adierazten zuten. Argudio hau tentsioan sartzen da egun gure jendartean emakumeei ezartzen zaien diskurtso sexistarekin. Nahiz eta ondorioa berdina izan (gorputzaren eraldaketa), arrazoiak tentsioan sartzen dira. Lehenak emakumeen ahalduntzea bideratzen duen bitartean, azkenak genero sistemen arteko desabantaila egoerak bermatzen ditu. Bigarrenik, mutilek maitasunaz hitz egiterakoan zenbait erresistentzia erakutsi zuten. Maitasun harreman ideala edo maitasunaren inguruan fantasiak izatea ukatu zuten, nahiz eta gero euren diskurtsoetan horien berri eman. Izan ere, behin eta berriz azaltzen zen maitasunari buruz pentsatzearen ukapena, maitasuna oso garrantzitsutzat jo arren.

⁴ Azken hamarkadako Bilboko datu estatistikoek erreparatuta, seme-alabak dituzten familia nuklearrak nagusi diren arren, bereziki jaitsi egin da (1991n familia nuklearraren eredu %51 izatetik, 2001ean %47 izatera pasa da). Guraso bakarreko familiak (1991n %8,29tik, 2001ean %10,39ra), seme-alabarik gabeko familia nuklearrak (1991n %15,17tik, 2001ean %17,55era) eta pertsona bakarreko familiak (1991n %11,65etik, 2001n %19,23ra) hazi diren bitartean. Iturria: <<http://www.eustat.es>>.

Genero identitatearen eragina agerian jartzen da zentzu honetan ere.

Genero arteko desabantaila egoerarekiko etenune nagusia neskek maitasunarekiko azaldu zuten jarreran datza. Maila teorikoan maitasunaren garrantzia feminitatearen erakuntzan azpimarratu ohi den arren, praktikan ikusi da errealitatean maitasuna ez dela beti nesken bizitzaren erdigunea. Horrez gain, neska hauek bikote gabe egoteko aukera ikuskatzen zuten. Bikoterik ez izatea eta bakardadearen arteko bateratasuna ukatzen zuten. Bikote gabe bikotearekin baino hobeto egotea gerta daitekeela aurreikusten zuten, diskurtso hegemonikoarekin bat ez etorrita.

Laburbilduz: amaierako hausnarketak

Egindako azterketa teoriko eta analisi enpirikotik abiatuta, hasieran planteatutako hipotesia baieztaturik eman nion amaiera lanari: maitasunaren sozializazioaren bitartez genero ezberdintasunak bermatzen dira.

Esan bezala, egun sozializazio prozesuak ezberdintzaileak dira gizon eta emakumeentzat, eta horien arteko aldeak nabarmentzen dira. Horrek ez du aldaera biologikorik ziurtatzen. Hala ere, diskurtso hegemonikoetan feminitatearen eta maskulinitatearen ezau-

garrien naturalizazioa gertatzen da. Emakumei zein gizonei "berezko ezaugarriak" atxikitzen zaizkie; hauek jakintzat hartzen dira, euren jatorria ikustezinaraziz. Ikuspegi hau gaindituz, ikuspuntu konstruktibista eta feminista batetik, genero sozializazio prozesuak azpimarratzen dira. Maitasunaren analisia bide honetatik jorratuz, maitasunaren pertzepzioak eta bizimoduak sozializazio prozesuen bitartez barneratzen direla baieztatu daiteke eta, aipatutako sozializazio ezberdintzailea urundu barik, hauek ere generoaren arabera baldintzatuta daudela ondorioztatu daiteke.

Ikusitakoaren arabera, maitasunaren esparruan genero desabantaila egoeraren jarraipenerako ereduak ugariak badira ere, tentsio eta gatazka guneak nabarmenak dira. Azken horiek etorkizunera itxaropentsu begiratzeko aukera ematen dute; izan ere, eredu hegemonikoa ukatzen duten ereduak sortzeko aukeraren izpiak izan daitezke.

Era horretara, esan beharra dago, sexismoa gainditzen dituzten sozializazio prozesu berriak ahalbidetzea ezinbestekoa ikusten dudala, genero arteko desabantaila egoera bermatzen dituzten maitasun ereduak gainditu ahal izateko. Funtsezkoa da horrelako jakintzetan aritzea gerora hezkidetzaren proiektuak gauzatu ahal izateko, horiek ezin daitezkeelako egon subjektuen errealitateetik urruti.

Bibliografía

- ABU-LUGHOD, Lila (1986) *Veiled Sentiments*, Berkeley, University of California Press.
- ALTABLE, Charo (1991) *Penélope o las trampas del amor*, Madril, Mare Nostrum.
- BAUMAN, Zygmunt (2005) *Amor líquido*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica.
- BECK-GERNSHEIM, E.; BECK, U. (2001) *El normal caos del amor: las nuevas formas de la relación amorosa*, Bartzelona, Paidós.
- BERGER, Peter; LUCKMANN, Thomas (2006[1967]) *La construcción social de la realidad*, Madril, Amorrortu.
- BRUBAKER, Rogers (1996) *Nationalism reframed: Nationhood and the national question in the New Europe*, Cambridge, Cambridge University Press.
- CONNELL, Robert (1987) *Gender and Power. Society, the person and sexual politics*. Cambridge, Polity Press.
- (1995) *Masculinities*, Oxford; Cambridge, Polity Press.
- CORIA, Clara (2001) *El amor no es como nos lo contaron... Ni como lo inventamos*, Buenos Aires, Paidós.
- DEL VALLE, Teresa *et. al.* (2002) *Modelos emergentes*. Madril, Narcea.
- ESTEBAN, Mari Luz (2007) “Algunas ideas para una antropología del amor”, *Ankulegi* 11: 71-85.
- (2008) “Etnografía, itinerarios corporales y cambio social. Apuntes teóricos y metodológicos”, in E. IMAZ (ed.) *La materialidad de la identidad*, Donostia, Editorial Hariadna, 135-158.
- FISHER, Helen (2004) *¿Por qué amamos?*, Madril, Taurus.
- GIDDENS, Anthony (1998) *La transformación de la intimidad: sexualidad, amor y erotismo en las sociedades modernas*, Madril, Cátedra.
- JÓNASDÓTTIR, Anna (2003) *El poder del amor, ¿le importa el sexo a la democracia?*, Madril, Cátedra.
- LAGARDE, Marcela (2005) *Para mis socias de la vida*, Madril, Horas y horas.
- LUHMANN, Niklas (1985) *El amor como pasión*, Madril, Península.
- LUTZ, Catherine; WHITE, Georges (1986) “The anthropology of emotions”, *Annual Review of Anthropology*, 15: 405-436.
- REDDY, William M. (1997) “¿Against constructionism: The historical ethnography of emotions?”, *Current Anthropology*, 38: 327-351.
- ROSALDO, Michelle Z. (1980) *Knowledge and Passion: Illongot Notions of Self*, Cambridge, Cambridge University Press.
- SALTZMAN, Janet (1992) *Equidad y género*, Madril, Cátedra.
- STEARNS, Peter N.; STEARNS, Carol Z. (1985) “Emotionology: Clarifying the history of emotions and emotional standards”, *The American Historical Review*, 90 (4):813-836.
- TENNOV, Dorothy (1979) *Love and Limerence: The expensive of Being in Love*, New York, Stein and Day.

Palabras claves: amor, adolescencia, feminismo, género, socialización.

Resumen: el objetivo de este artículo es reflexionar sobre los discursos y las prácticas que las y los adolescentes tienen entorno al amor, prestando especial atención a las continuidades, las tensiones, los conflictos y las rupturas observadas. Los resultados obtenidos muestran diferencias entre chicas y chicos (además de las alternancias que han supuesto otros factores) y se llega a la conclusión de que mediante la socialización del amor se reproducen formas de desigualdad de género. Sin embargo, cabe resaltar que existen tensiones y conflictos, siendo estos claves para el cambio.

Keywords: love, adolescence, feminism, gender, socialization.

Abstract: the aim of this article is to think about love discourses and practices in teenagers, paying particular attention to the observed continuities, tensions, conflicts and breaks. The results obtained show differences between girls and boys (besides the alternations caused by other factors), coming to the conclusion that the socialization of love reproduces forms of gender inequality. Nevertheless, it could be highlighted the fact that tensions and conflicts exist, which are the key for change.